

## **Amarako geltokian gaurtik aurrera aldi baterako erakusketa egongo da, Euskotrenen 40. urteurrenaren oroipena dela-eta**

- **Euskotrenek Donostiako Amarako geltokian aldi baterako erakusketa antolatu du; sozietate publikoaren ibilbidea berrikusten du eta bereziki, 'Topoaren' iragana, oraina eta etorkizuna.**
- **300 Serieko Unitateak erosteak -gaur-gaurkoz zirkulaziotik kenduta daude eta erakusketaren protagonistak dira- 'Topoaren' modernizazioa bultzatu zuen linea hori Euskotreneko erabiliena izatera heldu arte; egun zabaltzeko prozesuan dago bete-betean.**

Duela 40 urte, zehazki 1982ko maiatzaren 24an, Eusko Jaurlaritzak sozietate publiko berri bat sortzea onetsi zuen: Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA. Sozietate horren helburua zen 1978. eta 1979. urteen artean administrazio zentralak transferitutako zabalera metrikoko trenen kudeaketa erraztea. 1982an hasi zen bultzada publiko horri esker, Euskotren Euskadiko erreferentziazko garraio-bide-operadore bihurtu da. Gaur-gaurkoz hainbat linea ditu: bost tren, metro bat, Larreinetako funikularra, bi tranbia-zerbitzu (Bilbo eta Vitoria-Gasteiz) eta hainbat autobus Bizkaian eta Gipuzkoan; linea horiek Euskotrenen ibilbidea ziurtatzen dute, kalitatean, jasangarritasunean, eraginkortasunean eta segurtasunean oinarritutako zerbitzu publikoko eskaintzarekin. Urtean milioika pertsonak tokiz aldatzeko duten beharrezko aseptatzen du.

Euskadin mugikortasunaren ardatz egituratu gisa garraio publikoaren aldeko apustu irmoa aitortzeko eta berresteko asmoarekin, gaur, ekainak 29 (asteazkena), Donostiako Amarako geltokian abian jarri da aldi baterako erakusketa; bertan Euskotren gaur dena izateko gertatutako mugarri txiki eta handiak berraztertzen dira. Erakusketa horretan Eusko Jaurlaritzaren sozietate publiko gisa aritu den berrogei urteetan, konpainiak izan dituen momentuei buruzko informazioa jasotzen da. Amarako geltokiaren antzinako argazkiak ikus daitezke eta egungo eraikinaren maketa ere bai. Halaber, panel handi bati esker, 40 urteetan zehar Euskotren garraioen enpresa operadoreak igarotako uneak ezagut daitezke.

Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SAK 1982an sare zahar bat jaso zuen, instalazio eta ibilgailu zaharkituekin. Zenbait urtez operadore pribatuek ezin izan zituzten beharrezko inbertsioak egin horiek modernizatzeko.

Baldintza horietan, eskainitako zerbitzuak ez zeukan beharrezko kalitaterik eta bidaiariak etengabe galtzen ziren. Euskotrenek premiaz berritu behar izan zituen bere ustiapenak eta Eusko Jaurlaritzaren apustu publikoak bultzada nagusia eman zion, urratsez urrats, proiektuz proiektu, bere sareek gaur-gaurkoz egoera fidagarriaz eta etorkizuneko proiektio handiaz gozatzeko. Iñaki Arriola Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuak duela gutxi honako hau gogorarazi zuen: egungo eskaintza *"herritarrik gabe ezingo litzateke mantendu; Euskotrenen zerbitzuei esker mugitzen diren milioika pertsona horiek izan gabe eta, jakina, konpainiako langilerik gabe. Mila gizon eta emakumetik gora, 1982an bezalaxe, enpresaren etorkizunarekin eta gizartearen zerbitzuarekin daukaten konpromisoa bizirik mantentzen dute"*.

Gaur (asteazkena) Amaran abian jarri den erakusketa hori gaur-gaurkoz Topoa denaren modernizazioa bultzatu zuten mugarrietako bat gogoratzeko da, hots, Donostiaren eta Hendaiaren artean tren-plan integrala sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren erabakia. 1988an CAFi 12 tren egitea kontratatu zitzaion; 300 Serie gisa matrikulatu ziren Euskotrenen. Unitate elektriko berri horiek une horretan Euskotrenen zerbitzua ematen zuten bi serie modernoenen arteko hibridoa ziren, eta bereziki gaur egun Topo gisa ezagutzen dugunean ibiltzeko sortu ziren (E2 Lasarte-Oria - Hendaia eta E5 Altza - Amara).

Urte bukaerara arte (erakusketa ixten denean) Topoaren eta Kostaldearen tren-zerbitzuen erabiltzaileek merkataritza-ordutegian 300 unitate historikoa bisitatu ahal izango dute, Amarako geltokiko alboko bideetan (Autonomia kaletik gertuen dagoena). Serie horretako unitateak zirkulaziotik kanpo daude, material mugikor berriak ordezkatu baitzituen -erosoagoa, modernoagoa eta irisgarriagoa-; egun Euskotreneko lineetan ikus daiteke. 300 unitateak erosteak Topoaren modernizaziorako ezinbesteko bultzada ekarri zuen, gehien erabiltzen den Euskotreneko tren-linea bihurtu arte.

Euskotrenen sorreraren 40. urteurrena oroitzen duen erakusketa horretan Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca (ETS) erakundeak zuzendutako lanak eta proiektuak ere gogoratzen dira; horiei esker, Topoa zabaltzeko fasean dago bete-betean. Euskotrenek egun sozietate publiko gisa egindako jardueraren berrogei urte betetzen baditu ere, egiatan bere aurrekariak 1882koak dira, garai hartan ireki baitzen linearik zaharrena: Bilbotik Durangorako trena. Historiako 140 urte horietan, trenak Euskadin ondare oparoa sortu du, eta Euskotrenek hori baloratzen jakin du. Hala, 1994an Burdinbidearen Euskal Museoa zabaldu zuen; egoitza Azpeitiako (Gipuzkoa) geltoki zaharrean dago, eta bertan bide estuko tren-material mugikorraren Europako bildumarik garrantzitsuenetakoa jaso da.

### **Mugarri historikoak: 1982tik 2022ra arte**

- 📍 **1982:** 1982ko maiatzaren 24an Eusko Jaurlaritzaren Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SA sortu zen, baina ezagunagoa da Euskotren merkataritza-markaren izenez; EAEn jatorria eta helmuga zuten zabalera metrikoko trenbide guztien ondorengo gisa.
- 📍 **1983:** 1984ra arte Euskotrenen funtzionamenduari uholdeek kalte egin zioten.
- 📍 **1988:** Gipuzkoan lehenengo autobus-linea, Zumarraga eta Zumaiaren artean; 1992an sendotu zen prozesu hori lurralde historiko horretan ibilbide berriak gehituta.
- 📍 **1994:** Euskotrenek Larreinetako Funikularraren eta Burdinbidearen Euskal Museoaren azpiegiturak bere gain hartu zituen.
- 📍 **1995:** Euskotrenek Bilbotik Plentziara doan bere linea erabiliena (urtean 22 milioi bidaiari) banatu zuen eta lehenengo metroaren enpresa berriari (Metro Bilbao) eman zion.
- 📍 **1996:** Euskotrenek merkataritza-garraioa berreskuratu zuen, jasangarritasunarekin eta ingurumenarekin duen konpromisoari esker.
- 📍 **1998:** Lasarte-Oria adarra zabaltzea, Lasartekoei Donostiara irisgarritasun hobia eskaintzeko.
- 📍 **2002:** Bilboko tranbia berria zabaltzea; lehenengoz 50 urtean hirian tranbiaren erabilera berreskuratu zen.
- 📍 **2004:** 2004ko maiatzaren 21ean Euskal Trenbide Sarea sozietate publikoa eratu zen; Euskotrenen azpiegitura-arloa sartu zen Imebisarekin batera (Bilboko metroaren eraikuntza garatu zuen ingeniarietza publikoa).
- 📍 **2007:** Bilbo eta Durangoren arteko bidearen 125 urte.
- 📍 **2008:** Vitoria-Gasteizko tranbia zabaltzea, hiriarentzako sistema nagusi eta gaitasun handiagoa duena.
- 📍 **2009:** Vitoria-Gasteizko tranbia Abetxukoraino luzatzea.
- 📍 **2011:** Euskotrenen egungo logoa.
- 📍 **2017:** Bilbon metroko hirugarren linea zabaltzea (Euskotrenek jarduten du).
- 📍 **2019:** Atxuritik trenen azken irteerak Durangalderantz eta Donostiarantz.
- 📍 **2020:** Vitoria-Gasteizko tranbia Unibertsitateraino luzatzea.
- 📍 **2022:** Bilboko tranbia Boluetaraino luzatzea.

## **Eskariaren eboluzioa: 1.200 milioi bidaia**

Euskotrenen historiako 40 urteetan, bere zerbitzuak aukeratu dituzten erabiltzaileek 1.200 milioi bidaia inguru egin dituzte, urteko batez bestekoa honako hau da: 29,6 milioi bidaiari urtean.

Lau hamarkada horietan zehar Euskotrenek aldaketa nabarmenak izan ditu, mailarik baxuenetik, 1988an 22,8 milioi bidaia, mailarik altuenera arte, 2019an zenbaki errekorra lortu zen: 41,1 milioi ibilbide.

1982ko lehenengo ekitaldian Euskotrenek emandako zerbitzuek guztira 30,6 milioi bidaiari erregistratu zituzten; zenbaki horrek berehala beherakada bortitza izan zuen 1983ko udako uholde katastrofikoaren ondorioz. Dena den, euskal enpresa publikoak bere instalazioak eta material mugikorra hobetzeko egindako inbertsioak saritu egin ziren etengabeko eskariaren gorakadarekin: 1994an 37,9 milioi pertsona izan ziren.

Euskotrenen linearik aktiboena (Bilbo-Plentzia) Metro Bilbaori lagatzearekin bere urteko hogeita milioi bidaia metropoliko operadore berriari transferitu zizkion. Ondorioz, 1996an eskaria 24 milioi pertsona baino zeozer gehiago izan zen; kopuru hori 2009ra arte egonkor mantendu zen, gorabeherak izan arren. Urte horretan nabarmenak ziren Vitoria-Gasteizko tranbia berriaren emaitza positiboak. Hala, azken ekitaldian, lehenengoz Bilboko metroa ireki zenetik, hogeita hamar milioi bidaiak gainditu ziren.

Vitoria-Gasteizko tranbian eskaria etengabe areagotu zen, Euskotrenen Bilboko metroaren 3. linea ireki zen eta azpiegitura horrek Bizkaiko gainerako tren-zerbitzuetan ondorioak izan zituen eta Gipuzkoan etengabe hobetu zen (Intxaurren eta Alzako geltokiak irekitzea). Horiei guztiei esker, 2018an enpresaren erregistro historiko guztiak gainditu ziren, 39,5 milioi bidaiari izatera iritsi ziren. Urtebete geroago errekor hori birrindu zen: 41,1 milioi.

Zoritxarrez, eta mundu osoko garraio publikoko operadoreetan gertatu den bezala, Covid-19ak sortutako pandemiak 2005etik Euskotrenen zerbitzua bizitzen ari zen eskariaren areagotze jarraitua eten du. Dena den, normaltasunera apurka-apurka itzultzeak, Bilboko tranbia-zerbitzua Boluetara luzatzeak, 2023an Vitoria-Gasteizko tranbia Salburuara doan zati berria zabaltzeak eta 'Topoa' eraldatzeak eskaria azkar berreskuratuko dela eta mugari berriak gaindituko direla pentsatzera garamatza.